

**AKTEA**

**(2017/06)**

**EUSKERA BATZORDEA**

---

**Bilkurea:** Ohikoa  
**Datea:** 2017ko urriaren 4a  
**Lekua:** Kultura-etxeko batzar-gelan  
**Hasiera-ordua:** 08:05  
**Amaiera-ordua:** 08:25

**Bertaratuak**

Batzordeburua : Juan Karlos Agirre Santa Maria

Batzordekideak:

Aingeru Astui Zarraga  
Benito Ibarrolaza Munitiz  
Aritz Abaroa Cantuariense  
Idoia Platas Arenaza

Teknikari aholkularia: Maite Alvarez de Zarate

Idazkaria: Ainara Uriarte Bilbao

**Bertaratu ez diranak**

Batzordekideak:

Jon Goikolea Ojinaga  
Sergio Ugalde Zabala  
Alazne Zumeta Garro



## **Aztergaiak**

### **GAI ZERRENDEA**

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea
- 2.- Euskera Sustatzeko Ekintza Plana – Plan Estrategikoa
- 3.- UEMAREN azterlana. Aurkezpena
- 4.- Guraso eta etorkinentzako euskera eskolak
- 5.- Berbalagun
- 6.- Irakurleen txokoa
- 7.- Euskararen familia bidezko transmisioa Bizkaian
- 8.- 365 egun egitasmoa
- 9.- Euskerea ikasteko diru laguntzak
- 10.- Gidabaimena euskeraz atarateko diru laguntza
- 11.- Ahozko erabileran eragiteko saioak
- 12.- Galderak eta eskariak

## **Esan-eginak eta proposamenak**

### **1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA**

Batzordeburu jaunak hasierara emon deitso batzarrari eta, idazkari andreak 2017ko uztailaren 5eko 2017/05 aktea irakurri ostean, onetsi da bertaratutako guztien oneritxiagaz.

### **2.- EUSKERA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA – PLAN ESTRATEGIKOA**

Bermeoko Euskararen Plan Estrategikoa lantzeko proposamena aurkeztu jake batzordekideei.

Alde batetik herritarrak talde bat osotuko da eta batzar bi egingo dira urriaren 25ean eta azaroaren 15ean arratsaldeko 19:00etan, indarrean dagoan plana ebaluatzen eta aurrera begira egin beharrekoa aztertzen.

Beste alde batetik, Euskera Aholku Batzordea urriaren 18an arratsaldeko 19:00etan izango da eta plan estrategikoa eta 365 egun egitasmoa aztertuko dira.

### **3.- UEMAREN AZTERLANA. AURKEZPENA**

“Bermeo eta Ondarroa, hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak” ikerketa aurkeztuko da Kultur Etxeko Gaztelekuan, urriaren 5ean, arratsaldeko 19:00etan.



#### **4.- GURASOENTZAKO ETA ETORKINENTZAKO EUSKERA ESKOLAK**

Gurasoentzako eta etorkin helduentzako euskera eskolak aste honetan hasi dira, talde 2 sortu dira bakotxean.

#### **5.- BERBALAGUN**

Berbalagun martxan dago, momentuz 5 talde sortu dira.

#### **6.- IRAKURLEEN TXOKOA**

Dinamizatzailea barria egongo da oraindik aurrera irakurleen txokoa, Arrate Egaña. Urriaren 19an izango da lehenengo saioa.

#### **7.- EUSKARAREN FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA BIZKAIAN**

Lantalde bat sortu da hainbat udaletako euskera teknikariakaz gai hau lantzeko Soziolinguistika Klusterraren laguntzaz, Alkarbidek koordinatuta. Ikerketa aplikatu honen helburuak dira gaur egun Bizkaiko herrietan transmisioa zertan dan, euskera zerbitzuetan egiten dan lana ebaluatu eta etorkizuneko estrategiak zehaztu.

Aldundiaren eta Jaurlaritzaren finantziarazioa lortu gura da proiekturako, osterantzean, parte hartuko daben udalen artean finantzatu beharra izango da

#### **8.- 365 EGUN EGITASMOA**

Jaurlaritzak eta Euskara Elkartearen Topaguneak babesten daben 365 egun egitasmoa aurkezteko jardunaldi bat egongo da urriaren 7an Donostian.

Egitasmo honetan inplikaturiko dan talde bat osotzea lortu gura da Bermeon, Plan Estrategikoa aztertzeko batzarretan parte hartuko dabenen artean horretaz be berba egingo da.

#### **9.- EUSKAREA IKASTEKO DIRU LAGUNTZAK**

Udalak euskerea ikasteke emoten dauzan diru laguntzak eskatzeko epea zabalik dago, urriaren 2tik 31ra.



## **10.- GIDABAIMENA EUSKERAZ ATARATEKO DIRU LAGUNTZA**

Udalak Gidabaimena euskeraz prestatzeko emoten dauzan diru laguntzak eskatzeko epea zabalik dago, urriaren 2tik 31ra.

## **11.- AHOZKO ERABILERAN ERAGITEKO SAIOAK**

Udaleko ahozko erabileran eragiteko hurrengo saioa urriaren 20an izango da. Saio honen ostean, azaroan, Telp tailerra antolatuko da langile eta agintarientzat.

## **12.- ESKARIAK ETA ITAUNAK**

Jon Goikolea jaunak Euskera batzordearen ordua arratsaldeetara aldatu ahal dan eskatu dau, bere lan ordutegia dala-ta goizetan ezin dalako etorri. Batzordekideek ontzat hartu dabe eskaria.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, amaitutzat emon da batzarra, goiburukoan aitaturako ordu, egun eta leku berean, eta nik, idazkariak, erabagitakoa eta eztabaidatutakoa jasota geratu daiten, hori guztia idazten dot.

BATZORDEBURUA

IDAZKARIA

